

OIARTZUNGO-ERGOIEN KULTURGUNEA***ERGOIEN ALDEAN; PAGOARTE, gero HM Txokoa eta orain LUBERRI***

Azken urte hauetan, pixkanaka pixkanaka baina etenik gabe, Oiartzungo Ergoien aldean eskaintza ezberdinez osatutako kulturgunea gauzaten ari da.

Pagoarte izan zen lehen urratsa. Pagoaldeko Tornola (TornosTor) izandako fabrika zaharreko eraikin berrituan. 1997ko urriaren 25an ospatu zen Kultur elkarte honen inaugurazio ekitaldi ofiziala. Ordurako Herri Musikaren Txokoa dokumentazio zentro honen antolaketa lanetan ari ginen eta hara gerturatu ginen ospa-kizun horretan gure txalaparta eta albokaren musika eskainiz. Martxan egin dituen urte hauetan besteak beste eskultura, pintura, bideogintza, musika, bertsogintza, eta bestelako kultur arloetan Pagoartek programazio ugari, zabala eta interesgarria antolatu eta eskaini du.

Hurrengo urratsa 2002ko martxoaren batean martxan jarri genuen Herri Musikaren Txokoaren inaugurazioarekin eman zen. Buletin hau eskuratzeko duzuenok badakizue gure ibilbidea laburra baina emankorra izan dela. Hilabete hauetan, 2000 bisitariak, lau herri musika kontzertuak eta Bertsozale Elkartearekin batera antolatutako

Herri Musika 1. Jardunaldiak izan dira gure ginkizun adierazgarrienak.

Martxoaren 28an Pagoaldean kokatua dagoen LUBERRI Oiartzungo Ikasgune Geologikoaren inaugurazio ospakizunarekin emango da, oraingo, historia honen azken urratsa. Oiartzungo museo berri hau da Euskal

Aiako Harria eta Euskal Herriko beste eskualde ezberdinetako arroak, mineral eta fosilak ikusi ahal izango ditugu.

Erakusketaz gain, zentro honek badu laborategi bat ere, non ikasleek geologia eta paleontologiari buruzko lan eta praktikak egin ditzaketen. Baita biblioteca espezializatua ere, hala nola



Herriko lehen geologia eta paleontologia interpretazio zentroa. Bere gune ezberdinetan barrena bisitariak egingo duten paseoan, euskal lu-rraldeetan izan den bizia eta gure Historia Geologikoaren bilakaera ezagutzeko aukera eskainiko da. Bertan, Oiartzun Bailara, Oarsoaldea,

Oiartzun nahiz beste euskal lurraldetan aurkitutako materialen biltegia ere.

Zorionak beraz, eta bizi luze eta oparoa Luberriri. Hemendik aurrera arrazoi gehiagorekin esan dezakegu Oiartzungo txoko honetan badela zer ikusia eta zer ikasia.

KONTZERTUAK TXOKOAN

Udaberriko kontzertua

Martxoaren 29an - arratsaldeko 6,30etan - HM Txokoan



FLAVIO R. BENITO eta PABLO PUMARADA ZARABOZO

Asturieseko gaita eta perkusioak

Flavio Rodríguez Benito.

Uviéun, Asturieseko herri kulturarekin oso lotutako familia batean 1971an jaioa. Gaiteroa da. 1985an hasi zen gaita ikasten (gaita-jole ospetsuekin: Xuan Prado, Xuacu Amieva,...) eta geroago zeharkako flauta. Hainbat gaita talderen sorreran hartu du parte (Xana, Xaranzana, La Raitana), folk taldeetan (Nordés, Llan de Cubel,...) eta dantza taldeetan (Urogallos, L'Andecha Folclor d'Uviéu) jotzeaz gain. Diska batzuk grabatu ditu eta "Cursu de gaita asturiana en Cd-Rom" ikasbide interaktiboa ere argitaratu du. Munduan zehar kontzertuak eta ikastaroak ematen ditu. Gaur egun "La Raitana" gaita taldearen zuzendaria da, gaita irakaslea Navako Udal Musika Eskolan eta AEMMDAS-eko idazkaria.

Pablo Pumarada Zarabozo

Melardin jaioa, 1979an. Perkusiolaria da, hainbat dantza talde (Santa M^a de Villamayor), gaitero talde (Xaranzana, La Raitana) eta folk taldeetan (Cuerria, Xana, La Bandina, Llaímo, Guxan de Lluz) parte hartu duelarik. Flavio R. Benito eta Xuacu Amieva gaiteroen laguntzailea. Asturiesen gain munduan zehar ere ibilia da kontzertuak eskeintzen eta diska batzuk grabatu ditu:

"Albellume la viesca", "Mara",

"L'asturianu vive, la llucha sigue", "De la revuelta a la marea". Piloñako musika eskolako irakaslea da gaur egun.

KONTZERTUA

Emanaldi honetan bi musikari hauen eskutik Asturieseko herri musika tradizionalako zenbait ale entzun ahal izango ditugu:

LES MUSIQUES DE LA ASTURIANADA.

Teo de subir al puertu, Carretera d'Avilés, Baxaben cuatro ayernos, Ecos de la quintana (Tradizionalak).

Abesti asturiarra, asturianada edo "La Tonada" kanta mota Asturieseko herri musikan sustraituena eta maitatuena da.

AMIESTU D'ALBORAES.

Alborada de Maquilo / Alborada d'Aladino el d'Amandí /

Alborada de Villanueva (Tradizionalak / Flavio R. Benito). Amiestu, asturieraz, osotasuna lortzeko beharrezko batasuna da. Alboradek, askotan gaitero eta danbor-joleen eskutik, herriak esnatzeko balio zuten.

AMIESTU DE XOTES.

Xota de L.laciana / Xota de Valdeferreiros / Xota del oriente (Tradizionalak).

La xota, les mudances, lo pesao, ... modu asko gizon eta emakumeak aurrez aurre egindako dantza izendatzeko. Ale asko dago dantza mota hauekarakorik.

MARA (Flavio R. Benito).

Flaviok bere alabatxoari egindako kanta eta bere azken diskaren izenburua.

AGARRAOS / RUMBA D'IBIAS.

La Maruxina / La Panderetera / Rumba d'Ibias (Tradizionalak / Flavio R. Benito).

Berriagoak diren dantza mota hauetan bikoteak elkartuago aritzen ziren.

AGUIAR 203 (Flavio R. Benito).

1999an egina, bere emaztearen haurtzaroko La Havanako kalearen izena darama.

EL SALTÓN (Tradizionala / Flavio R. Benito).

Xiringüelu, lixeru edo gallegada deiturekin ere ezaguna, Xota eta muñeirarekin batera Asturieseko dantza solte garrantzitsuenetakoa.

AMIESTU DE PASUCÁIS Y MUÑEIRÉS.

Pasucáis del Macuso / Pasucáis d'Uviéu / Muñeira d'Ibias / Muñeira de Rengos (Tradizionalak / Flavio R. Benito). "Pasucáis" izeneko doinuek gaita-ren errepertorioan berezko atala osatzen dute, kalez-kale joateko erabiltzen direlarik. Muñeirak berriz, dantza solte mota oso zabalduak dira Asturieseko folklorean, ehundaka ale daudelarik. Erritmo arinekoak dira.

JEAN MIXEL BEDAXAGAR, MAIDER BEDAXAGAR eta MIKEL URBELTZ

Zuberoako kantu eta dantza doinuak

Jean Mixel Bedaxagar

1953ko uztailaren 7an jaio nintzen Ziberoko Urdinarbe herrian. Ene aita eta familiakoak oso dantzari trebeak ziren, eta lehenik dantzan ikasi nuen. Beranduago xirulan ikasi nuen eta asko ibili naiz Garat Arhanekin eta Etxahun Irurikin. Horiek biak maisuak izan ditut. Geroztik pastoraletan parte hartu dut eta 1988an Agosti Xaho idatzi nuen.

Azken denbora hauetan kantari eta xirulari banabil Euskal Herri osoan. Zuberoako kulturaren eta ahots tradizio aberatsaren ordezkari aparta dugu Jean Mixel Bedaxagar. 1976an abestu zuen lehen aldiz jendaurrean eta 1983an grabatu lehen diskoa. Haatik, osasun arazoak zirela medio, kantugintza baztertuta eduki zuen hainbat urtez. Zuberoako pastoraletan esperientzia handia du Bedaxagarrek. 1988an Agustin Xaho euskaltzalearen bizitzan oinarritutako pastorala idatzi zuen, eta berriki "Ama" ikuskizuna osatu du, Etxahun Iruri Bedaxagarren maisua eta Gaiarre gogora ekartzen dituen lana.

Diskografia:

Xiberoa (1983) izeneko bere lehen diskoa.

Euskal Herriko Soinu Tresnak (1984) diskoan parte hartu zuen xirula eta ttuntuna joaz, P. Ager Garat atabalarik lagun zuelarik.

Otea lili denean (1995)

Bedaxagar (1996)

Maidier Bedaxagar

Jean Mixelen alaba, gaur egun entzuten diren Zuberoako kanta zaharrak, berezko modu horretan, etxean aitarekin eta herriko beste kantariekin ikasi ditu.

Mikel Urbeltz

1969 urtean jaioa, J. A. Urbeltz eta Marian Arregiren semea da, beraz dantza eta musika tradizionalarekiko zaletasuna etxeko giroaren isla du. 1985 urtean Argia dantza taldean sartzen da dantzari eta musikari (arabita), talde honek egindako ikuskizunetan parte hartzeko: Irradaka 87, Zortziko 88, Muriska 89-91, Alakiketan 92-95, Kondharian 97-2000 eta Pas de Basque 2002an

estreinatua Miarritzen. 95ean "Berizko Itsuari" diska argitaratu zuen, honetan, besteren artean Txilibrin albokariaren lankidetzan izan zuelarik. Bedaxagarrekin lanean ere garai hartan hasi zen eta 96an "Bedaxagar" diskan gauzatu zen, Zuberoako tradizioan txirula, ttun-ttuna eta arabitak osatzen duten hirukotea berriro txertatuz. Tradizio honekin berarekin beste harreman interesgarriak ere izan du, zenbait pastoraletan parte hartuz. Azken lau urteotan, "Dantza Ganbara" ekimenean dihardu, Bilboko Kafe Antzokian hilabetean behin egiten den dantza saio irekian. Anje Duhalderi laguntzen dio Kantagintza izeneko saioetan. Musika jotzeaz gain, irratsaio bat ere egiten du Bilbo Hiria Irratian, Baskistan izeneko, baita Donostiako Udazkenean Folk jaialdia antolatu ere, beste lanen artean.

<<Ihaute aberatz bezain alagerak izaten dütügü Xiberoan maskaraden bidez; herri hanitxek parte hartzen düe horietan, lehen orai beno haboro; hala nola ene sor herriak Urdinarbe mente hontan egin dütüan hamar bat agerraldi. Giro hortan sortü nintzan 1953 ean; Attatta, Osaba, eta Aita dantzari trebeak nüntüalarik! Arozgoa eta laborantxa mündüa

ezagütü dütüt beti danik etxen, idüri lüke dantzareki bat egiten düela! Lehen urhasak ikasi nütüan etxekoeki eta geroxago jauziak Oskigile anaieki.

Denbora haüetan Altzürükütarrek altxatü zütüen maxkaradak, han ezagütü nütüan, Etxahun, Kopen eta Garat Arhane, geroztik horiekin ebili nizüsü plazaz plaza, Jaun, txorrotx, txerrero edo txülülari nintzalarik.

1976 ean ezagütü nütüan Juan Antonio eta Mikel Urbeltz gaztea (Aita dantzari fina balin bazen ere) entzun segur salaturen orduan etorkizunez gaintika den Mikel txorekin lan hau hoget urteren bürüan eginen günüala Niko Etxart, Junes Xuburu eta Jean-Mixel Barreix eki batean!

Aita Junes Casenave Harigilek ederki egin dereizkü ützülpinak, Altzabehetikoko eliza gogo hunez zabaltzen zaükülarik!>>

Kantuak Jean Mixelek eskeiniko ditu eta Maidier Bedaxagar bere alabaren laguntza izango du.

Zuberoako herri dantzak ia utzi, Kontraiantza mazurka, scotish..., bralia eta maskaradako dantzak berriz J.M. Bedaxagarrek txirula eta ttun-ttunaz eta M. Urbeltzek arrabitzaz.





Orrialde honetan abenduaren 28an buruturiko "neguko kontzertuko" hiru une ikus ditzakezue: Baudoin familiaren aktuzioa alde batetik, hirurak zarrabeteak jotzen ari direlarik, Joxe Lasa eta Joxe Lekuona bestaldetik trikitiari ekiten eta beherago Auzokalten egindako afariaren argazkia ere badago.

BISITA BEREZIAK

Joan den otsailaren 15 eta 16ko aste-buruan "L'Aula de Música Tradicional i Popular de Catalunya" delakoa izan genuen gurean. Berrogeitahiru lagunez osatutako taldeak, irakasle eta ikasle, Herri Musikaren Txokoa eta Hernaniko Musika Eskola bisitatu zituen. Larunbat arratsaldez Hernaniko kaleetan barrena ibili ziren beraien musika eta dantzaz han zebiltzanen begi-belarriak gozaten. Festa behar bezala amaitzeko herri honetako bertako "Larre-gain" sagardotegira bildu ziren bi eskoletako partaideak anaiartean afaltzera, eta noski, ez ziren han ere gralla, dultzaina, txistu eta alboken musika eta dantzak faltatu.

L'Aula de Música Tradicional i Popular, orain hamar urte Kataluniako gobernuko Departament de Cultura delakoak sortutako eskola da. Hango herrialde guztietan ditu egoitzak (Barcelona, Lleida, Figueres, Vilaseca eta Tortosa) eta kataluniar herri musikako soinu-tresnen irakaskuntzan dihardu (gralla, dolçaina, flabi-

GOGORATU: hurrengo kontzertuaren ondoren (martxoaren 29an) izango den afarira etorri nahi baduzu deitu guri, tokia erreserbatzeko. 12 ☐.



ol, timbal, violí, akordeoi diatonikoa,...). Armonia, instrumentazioa, folklorea, etnomusikologia eta musikariari ezinbesteko gertatzen zaizkion beste zenbait gai hartzen dituen kurrikulum diseinua ere sortu du. Eta irakaskuntzari zuzenean dagozkienaz gainera, Kataluniako lurralde osoan

zabaltzen diren ez ohiko hiru iharduera sail edo ziklo antolatzen ditu (hitzaldiak, kontzertuak, liburu eta KD-en aurkezpenak,...) aldi berean ikasle eta irakasleek Kataluniaz kanpoko beste musikari eta erakundeak ezagutu ditzaten saiatzeko delarik (Oiarzun eta Hernanira egin duten txango hau horren adibide).

BISITARI KOPURUEN DATUAK

Abendua: bisitarien kopurua: 95.
Antolatutako taldeak: 2
Urtarrila: bisitarien kopurua: 57.
Antolatutako taldeak: 2
Otsaila: bisitarien kopurua: 274.
Antolatutako taldeak: 11
Martxora arteko bisitari guztiak: **2349**

Kontutan hartzeko:
Herri Musikaren Txokoa bere lehenbiziko urtea bete du.

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

